



139. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaia herrian, 2019ko abenduaren 12an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ezohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Ostolaza Esnal, jna.

Bertaratutako zinegotziak: Alex Oliden Antia, jna.
M. Arritokieta Iribar Egaña, and.
Asier Arakistain Alberdi, jna.
Jose María Azkue Castillo, jna.
Maidier Alberdi Yeregui, and.
Marina Bidasoro Arocena, and.
Maddi Aldalur Osa, and.
M. Aranzazu Gajate Telleria, and.
Oier Korta Esnal, jna.
M. Cruz Alvarez Aparicio and.
Cristina Vicente Iciar, and.
Gotzon Embil Unanue, jna.
Iker Mardaras Arrieta, jna.
Ainhoa Illarramendi Azkue, and.
Miren Aitziber Odriozola Etxezarreta, and.
Arritokieta Marañón Basarte, and

Ez bertaratuak:

Idazkaria:

Gorka Urgoiti Agirre



EGUNEKO AZTERGAIAK

Arratsalde on:

Hasiera emango diogu ezohiko osoko bilkurari, gaur osteguna eta abenduak hamabi hasiko gara,

1.- AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA:

(137. zbkia – 2019.10.31

138. zbkia – 2019.11.18

Bi aktak onartuak izan dira

2.- UDALAREN ETA GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA PARTZUERGOAREN ARTEAN UDAL ERROLDAREN DATUAK EGIAZTATZEKO HITZARMENA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

██████ UDALAREN ETA GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA PARTZUERGOAREN ARTEAN UDAL ERROLDAREN DATUAK EGIAZTATZEKO HITZARMENA

Donostia, 2019ko irailaren ███an.

BILDUTA

Batetik, **Antonio Aiz Salazar** jauna, **GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA PARTZUERGOA**ren **Lehendakaria**. (aurrerantzean, GGLA).

Ondorio hauetarako berariazko ahalmenarekin esku hartzen du, 2019ko irailaren 24an egindako GGLAren Ohiko Batzar Orokorrean onartutako erabakiaren bidez emana.

Bestetik, █████ alkate gisa, █████ **UDALAREN** (aurrerantzean Udala) izenean eta ordezkapenean.

Ondorio hauetarako berariazko ahalmenarekin esku hartzen du, █████ udalbatzaren Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren bidez emana.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote gaitasun nahikoa hitzarmen hau izenpetzeko, Administrazioen arteko koordinazio, lankidetzeta eta elkarrekiko errespetuaren printzipioei jarraituz, eta horretarako ondorengo azalpen eta klausulak hitzartu dituzte:

AURREKARIAK

I.- GGLA, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Arrasate, Zarautz, Hernani, Lasarte-Oria eta Oiartzungo Udalek osatutako kontsorzio bat da, eta bere xedea Lurralde Historiko osoa kohesionatzea da, garraio eredu jasangarriaren bidez, eta mugikortasunaren alorrean herri administrazioen helburuak babestea. Bere zeregina, Gipuzkoako Lurralde Historikoan herritarren mugikortasun irisgarria eta kalitatezkoa sustatzea da.



II.- Gipuzkoako Foru Aldundiak, Lurreldebus txartelaren bidez, Lurreldebusen hiriarfeko autobusetan sartutako esparru bat ezartzea lortu zuen, hau da, zonakatze bera, tarifa berak, ordaintzeko modu bera eta hobari/deskontu berak ezarri zituen, eta aldi berean zerbitzu elkarreragingarria da Donostia, Irun, Arrasate, Hernani, Errenteria eta Oiartzungo hiri-autobusekin, baita Renfeko Aldiriak zerbitzuarekin ere. Lurreldebus txartelak hiriarfeko garraio publikoaren erabilera areagotzen lagundu zuen nabarmen.

Beste urrats bat emateko eta, Gipuzkoan, Lurrelde Historikoko garraiobide publiko nagusietan tarifen integrazioa abian jartzeko asmoz, etorkizunean beste garraiobide batzuk eransteko aukera irekita utziz, Gipuzkoako Garraioaren Lurrelde Agintaritzak lurreldeko garraio publiko osorako tarifa esparru global bat zehaztu zuen. Horrela, 2012an, lurreldeko eragile nagusiekin batera (Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, Irungo Udala, Errenteriako Udala, RENFE eta EUSKOTREN), lurreldeko garraio publiko kolektiboan tarifak integartzeko sistema ezartzeko Lankidetzaren Protokolo Orokor bat sinatu zuen.

Protokoloak, sistema hori ezartzea sustatzeko lankidetzaren esparru orokor bat ezarri zuenak, jaso zuen protokolo hori Gipuzkoako Lurrelde Historikoko garraiobide guztietan sartutako taldeak finkatzean oinarritu beharko litzatekeela, garraiobide guztietan komunak diren gizarte politikak aplikatuz.

Aipatutako protokoloaren II. Eranskinak tarifa integartzeko sistemako talde bereziak zehaztu zituen, eta talde horiei dagokien txartela lortzeko baldintza gisa ezarri zuen Gipuzkoan erroldatuta egoteko betebeharra.

III.- Kontsortzioko kide diren entitateek txartel bakarraren kudeaketa GGLari eman zioten, eta Gipuzkoako Lurrelde Historikoko garraio publiko kolektiboan tarifa integartzeko sistema ezartzeko hitzarmenak sinatu zituzten.

2013ko martxoaren 4an Gipuzkoako Tarifa Integrazioa ezarri zen MUGI markaren mendean.

Bestalde, 2013ko martxoaren 15ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak GGLari, Gipuzkoan bidaiarien garraio publikoaren tarifa integartzeko sistema kudeatzeko beharrezkoak ziren LURRELDEBUS, S.L.U.-tik eratorritako aktiboak, eskubideak eta betebeharrak laga zituen.

IV.- Egun, taldeentzako 180.000 MUGI txartel baino gehiago daude, hau da, horien titularrak Gipuzkoan erroldatuta egotea eskatzen dutenak.

GGLaren berezko zereginak garatzeak zehazten du beharrezkoa dela GGLak egiaztatzea taldeentzako MUGI txartelak eskatzen dituztenak Gipuzkoako udalerritan batean erroldatuta daudela.

V.- GGLaren helburu nagusien artean dago erakunde arteko lankidetzaren harremanak areagotzea eta modernizazioa bultzatzea, dauden baliabideak arrazionalizatzea, batetik, baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra bilatuz, eta bestetik, erabilizailerik eta oro har herritarrei zerbitzu hobea eskaintzea, lan administratiboak sinplifikatuz edo izapide jakin batzuk erraztuz, hori guztia, pertsonen intimitate eskubidea zaintzeko eta beren datu pertsonalak babesteko beharrezkoak diren bermeak kaltetu gabe.

Horregatik guztiagatik, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko interesa dutenez, Udalak eta GGLak ulertzen dute egokia dela GGLak taldeentzako MUGI txartela eskatzen duen pertsonaren bizilekuaren datuak modu telematikoan eskuratu ahal izatea; eta Udala da datu horiek dituenak.

Hobekuntza, herritarrei eragozpenak sortzea saihesten den eta zerbitzu publikoetara sartzeko errazten zaien neurrian lortzen da, eta aldi berean, udal baliabideak aurrezten direlako, eskaerak artatzeari eta errolda dokumentuak igortzeari dagokienez.

VI.- GGLaren berezko lanak egiteko taldeentzako txartela eskatzen duen pertsonaren bizilekuaren datuak telematikoan eskuratu behar dira. Aipatutako informazioa eskuratzeko, lehentasunez bitarteko informatiboak edo telematikoak erabiliko lirateke



Zumaia Udala

2019IAKU0014-A19/9535

eta herritarrek, Udalean dauden beren datu pertsonalei dagokienez dituzten eskubideak eta bermeak babestuta egingo litzateke. Errolda egiaztatzeko izapidea Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen enpresaren bidez kudeatuko litzateke.

VII.- Bestalde, GGLAk eskaera egiten duten erabiltzaile guztiei baimena eskatuko die, baita egun txartel horiek dituztenei ere, erroldako datuak eskuratzeko.

VIII- Aurrekoa ikusita, 2014ko abendua eta 2015eko maiatza bitartean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak, Gipuzkoako udalekin hitzarmen bana sinatu zuen izaera pertsonaleko datuen lagapenaren arloan. 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 49. artikuluan, hitzarmenek barnean hartu beharko dituzten gaiak zehazten ditu; horien artean hitzarmena aldatzeko araubidea xehatzen da. Egungo hitzarmenean ez da hitzarmena aldatzeko araubidearen ingururik adierazten. Hortaz, 40/2015 Legeko zortzigarren xedapen gehigarriko lehen atalean zehazten da hitzarmen guztiak legean aurreikusi denari egokitu beharko zaizkiola hiru urteko epean, legea indarrean jartzen denetik aurrera zenbatuta. Kontuan hartuta egungo hitzarmenaren klausulak araubide juridiko berrira eta hitzarmenaren gehieneko iraupenera egokitu behar direla, egokitzen jotzen da hitzarmena amaitutzat ematea elkarren arteko adostasunez, eta beste hitzarmen bat sinatzea. Horrenbestez, bi aldeek hitzarmena sinatzea adostu dute honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Xedea.

Hitzarmen honen xedea da GGLAK MUGI txartelak eskatzen dituzten pertsonak Gipuzkoako Udalerriaren batean erroldatuta egotea beharrezkoaren eskakizunaren gainean datu pertsonalak erabiltzeko baldintzak ezartzea, baita GGLAK mantendu behar duen konkidentzialtasun esparrua ezartzea ere.

Bigarrena.- Izaera pertsonaleko datuen trataera eta konfidentzialtasuna.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak aitortzen du badakiela jaso dezakeen informazio guztia eta, batez ere, izaera pertsonaleko informazioa, isilpekoa dela eta, horregatik, bere ardurapean, betekizun hauek beteko ditu:

- Informazioa lehenengo klausulan aipaturiko xederako erabiliko du, hirugarrenei informazioa emateko ahalmenik gabe.
- Dagozkion betebeharrak guztiak beteko ditu, betiere datu pertsonalen babesa eta informazioaren segurtasunari buruz indarrean dagoen araudia zorrotz errespetatuz.
- Ez die informazioa hirugarren pertsonari jakinarazi edo ezagutaraziko, ezta informazioa gordetzeko ere.
- Bere eginkizunak betetzeko behar-beharrezkoa duten langileei bakarrik jakinaraziko die informazioa. Bere ardurara izango da isilpeko betebeharrak betearazteko beharrezko neurriak hartzea.
- Bai Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak, baita bere langile guztiak ere, atal honetan ezartzen diren isilpeko betebeharraren eta sekretu profesionalaren menpe izango dira.

Hirugarrena.- Segurtasun neurriak.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak jaso dezakeen informazio guztia eta, batez ere, izaera pertsonaleko informazioaren konfidentzialtasuna zaintze aldera eta betiere, datuen segurtasuna bermatu, hauek aldatu, galdu edo baimendu gabeko inorri iritsi ez dakion, beharrezkoak diren neurri teknikoak nahiz antolaketa-neurriak ezartzeko konpromisoa adierazten du.

**Zumaia Udala Laugarrena.- Aplikagarri diren printzipioak.**

Hitzarmen hau betetzeko ondoko printzipio eta arauak bete behar dira:

- 1.- Datuak funtzio eta eskumenetara egokitzea.
- 2.- Eskaturiko datuen eta lortu nahi diren helburuen artean proportzionaltasuna egotea.
- 3.- Datuak bidaltzeko eta horietan sartzeko bideak seguruak izatea.
- 4.- Eraginkortasuna lortu eta kostuak murriztea.
- 5.- Datuak transferiezinak izatea.

Edonola ere, datuetan sartzeko erabiltzailearen baimena lortu beharko du aurretik. Lortutako baimen hori dagokion espedientean jasota geratuko da. Honen inguruan, hitzarmeneko bigarren klausula ezarritakoaren arabera jardungo da.

Bosgarrena.- Datuen izaera eta hitzarmenaren xedea gauzatzeko metodologia.

Hitzarmen honen xede diren datuak soil-soilik GGLAren aldetik erabiltzaileen erroldatzea egiaztatzea mugatuko dira.

Horrela, hitzarmen honetan deskribatutako taldeentzako MUGI txartelak eskatzen dituzten pertsonak Gipuzkoako udalerrri batean erroldatutako daudela egiaztatuko da. Hitzarmenaren xedea burutzeko erabiliko den metodologiari dagokionez, adierazi behar da soil-soilik sistema informatikoak erabiliko direla, SFTP, FTPS edo SSL, esaterako. Dena den, sistema horiek, datu pertsonalak babesteko araudiak eskatzen dituen segurtasun, osotasun eta konfidentzialtasun berme guztiak bete beharko dituzte.

Seigarrena.- Jarraipen Batzordea

Hitzarmen hau sinatzen dutenak, unean-unean ezarritako ordezkari sistema bitartez, jarraipen batzordean bilduko dira egoki irizitako maiztasun eta inguruabarrak ematen direnean. Batzordearen funtzioak honako hauek izango dira: hitzarmenaren aplikazioak eragiten dituen arazo ezberdinak aztertzea, informazio lagapen berriak sistematizatu eta automatizatzeko egokiera aztertzea, eta proposatutako eskaera nahiz beharren arabera eta beharrezko baliabideen balorazioa eginda, kasu bakoitzarentzat egokiena den prozedura eta garapen informatikoa adostea.

Zazpigarrena.- Ez betetzeak.

Informazio hori behar ez bezala erabili edo lortzeak, edota, oro har, isilpean gordetzeko obligazioa urratzeak dakartzan erantzukizun penal, administratibo eta zibilien kaltetan gabe, eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziari edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoari (otsailaren 25eko 2/2004 Legeak sortutakoari) dagozkion funtzioez gain, aldeetako batek, hitzarmen honetan jasotako edozein baldintza ez betetzeak, besteari gaitasuna emango dio bat-batean eta zuzenbide osoz hitzarmena indargabetzeko.

Arrazoiak edozein izanda ere, hitzarmena behin indargabetuta, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintzaritza berehala hitzarmena gauzatzeko iritsi zaion informazio guztia, edozein euskarritan egonda ere, itzuli beharko du.

Aipatu informazioa itzuli arte, berau behar bezala gordetzeko erantzukizuna izango du Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintzaritzak.

Zortzigarrena.- Erantzukizuna.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintzaritzak, berak edota informaziora sarbidea duen langileak, hitzarmen honetan ezartzen den edozein betebeharrak betetzen ez badute sor daitezkeen kalte-galera guztien erantzukizuna izango du.

Bederatzigarrena.- Lege Araubidea

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak Atariko Tituluko VI. Kapituluaren xedatutakoarekin bat.

Hamargarrena.- Ondorioak, aldaketak eta iraungipena



Zumaia Udalak

2019IAKU0014-A19/9535

1.Hitzarmen honek sinatzen den egunetik izango ditu ondorioak, eta lau urtez egongo da indarrean. Epe hori bukatu aurreko edozein unetan, akordioaren sinatzaileek aho batez adostu ahalko dute hura luzatzea, gehienez beste lau urterako.

2.Hitzarmenaren aldaketa bi aldeen adostasunarekin burutuko da, Jarraipen Batzordeak hala proposatuta; horretarako, Hitzarmenaren indarraldian zehar aldaketa gehigarriaren harpidetza taxutu beharko da.

3.Hitzarmena iraungi ahal izango da:

- a) Indarraldia igaro eta hitzarmenaren luzapena oraindik erabaki gabe egoteagatik.
- b) Aldeek aho batez hala adosteagatik.
- c) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeagatik.
- d) Epaileak hitzarmena deusez deklaratzegatik.

Testu honetan eratzen den Jarraipen Batzordeak izango du eskumena hitzarmenean jasotako betebeharren eta konpromisoen inguruan bi aldeetako edozeinek salatzen dituen ez-betetzeen berri izateko eta horiek baloratzeko.

4. Lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen arteko informazio lagapena orain arte beste tresnaren batek arautu badu, hitzarmen honek tresna hori ordeztuko du. Dena den, ulertuko da tresna horrek baimendutako lagapenak indarrean daudela eta hitzarmen honek babestu eta arautzen dituela, eta bidezko eranskinen bitartez gehituko zaizkio hitzarmenari.

Hamaikagarrena.- Hitzarmenaren iraupena.

1.- Hitzarmen hau izenpetzen den egunean jarriko da indarrean, eta 4 urte iraungo du. Hala ere, beste lau urtez luzatu daiteke, bi aldeek idatziz hala erabakitzen badute.

2.- Iraupenari buruz erabakitakoa gorabehera, bi aldeetako edozeinek alde bakarrez suntsiarazi dezake hitzarmena, hura bukatu baino bi hilabete lehenago beste alderdiari idatziz jakinarazita.

Ados daudela adierazteko eta hitzartutakoa behar bezala jasotzeko, bi aldeek agiri hau sinatzen dute, bi aletan, idazpuruan adierazitako leku eta egunean.

Aldeko botoak: 17 boto (9 EH BILDU; 7 EAJ-PNV; 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:. 1.- Udalaren eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde agintaritzaren partzuergoaren artean udal eroldaren datuak egiaztatzeko hitzarmena onartzen da.-

2.- Alkateari hitzarmena formalizatzeko beharrezkoak diren agiriak sinatzeko gaitasuna eman zaio



3.- OGASUNA.-

3.1.- IRIZPENA:

3.1.1.- 2020RAKO ZUMAIAKO UDALAREN AURREKONTUA OROKORRA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

AURREKONTU PROIEKTUAREN PROPOSAMENA ETA IRIZPENA, 2020. URTERAKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEARI BURUZKOA

AURREKARIAK

1.- 2019ko urriaren 30etik aurrera sail bakoitzak bere aurrekontuak aurkeztu ditu dagozkion Batzordetan. Hain zuzen ere, urriaren 30ean tokiko garapena, ekonomia sustapena eta turismo, azaroaren 4an hezkuntza eta euskara, eta berdintasuna, azaroaren 13an kultura, azaroaren 19an gizarte zerbitzuak, azaroaren 25ean hirigintza eta ingurumena, eta azaroaren 26an pertsonala. Kirol patronatukoa, aldiz, azaroaren 28an aurkeztu zen.

2.- Tarte horretan, azaroaren 18an aurrekontuaren zirriborroa bidali zitzaizen korreo elektronikoz gainontzeko alderdi politikoei. Horren ondoren, azaroaren 21ean Udala gobernua gainontzeko alderdi politikoei bildu zen.

3.-Azaroaren 26an aurrekontuaren aurreproiektua bidali zitzaizen korreo elektronikoz gainontzeko alderdi politikoei.

2.- Ondoren, 2019ko abenduaren 3ko Ogasun Batzordean, Zumaiaiko Udalaren 2020rako aurrekontu aurreproiektuaren zirriborro berria aurkeztu eta azaldu zen. Espedientea ikusten da eta gai batzuk eztabaidatzen dira.

3.-2019ko abenduaren 5eko Ogasun batzordean, Udala gobernua gainontzeko alderdi politikoei izandako bilerak eta gero, 2020rako aurrekontuaren proiektua aurkeztu zen.

2020ko aurrekontu proiektua ondorengo dokumentazioaz osaturik zegoen:

- Memoria
- Aurrekontuaren finantza-ekonomia txostena
- Aurrekontu bateratua
- Aurrekontuen egonkortasun, finantza iraunkortasun eta gastu erregela aztertzen dituen txostena
- Udala aurrekontuak
- Programa funtzionalen azalpen taulak
- Plantila organikoa eta lanpostuen zerrenda
- Pertsonalaren eranskina
- Zorpetze eranskina
- Inbertsioen eranskina
- Konpromisoetako kredituen egoera orria
- Aurrekontua gauzatzeko udal araua
- Kirol patronatuko aurrekontuak
- Kirol Patronatuaren plantila organikoa eta lanpostuen zerrenda
- Kirol Patronatuaren pertsonalaren eranskina
- Kirol Patronatuko programa funtzionalen azalpen taula

2020RAKO AURREKONTU OROKORRAREN PROIEKTUA



Zumaia Udalak

2019IAKU0014-A19/9535

Ondorioz, 2019ko Abenduaren 5ean, honako aurrekontu proiektu PROPOSAMENA onartu da ondorengo botoekin:

Aldeko botoak: 4 (3 EH-BILDU, 1 EAJ/PNV)

Aurkako botoak :

Abstentzioak:

2020rako Aurrekontu Orokorraren proiektua Osoko Bilkurara eramatea erabaki da.

Batzordeburua

Zumaian, 2019ko Abenduaren 5a

Kontu-hartzailea

Emendakinarekin hasiko gara:

EAJ-ak aurkeztutako lehendabiziko emendakina:

Bidelagun 2019 programaren bigarren fasea. Gizarteratze eta laneratzea,

Gizarte zerbitzuak

Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
KONTU-SAIL BERRIA	Bidelagun 2019 programaren bigarren fasea. Gizarteratze eta laneratzea.	- €	7.000 €
Gutxitzea proposatzen den kontu-saila:			
1 0200.481.326.00.02 Txiribuelta		(-7.000 €)	

Aldeko botoak: 7 boto (EAJ-PNV)

Kontrako botoak: 9 boto (EH BILDU)

Abstentzioak: boto 1 (ES-SV)

ERABAKIA:. EAJ-PNVk aurkeztutako 1.go (GIZARTE-ZERBITZUAK) emendakina ez da onartzen

Pasatzen gara bigarren emendakinera:

Kirol edo kultur instalazioak parte-hartze prozesua,

Hirigintza eta lurralde antolamendua

Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
KONTU-SAIL BERRIA	Kirol edo kultur instalazioak parte-hartze prozesua.	- €	19.000 €
Gutxitzea proposatzen den kontu-saila:			
1 0300.227.336.00.98 Komentua parte-hartze prozesua		(-19.000 €)	

Aldeko botoak: 7 boto (EAJ-PNV;)

Kontrako botoak: 9 boto (EH BILDU)

Abstentzioak: boto 1 (ES-SV)



ERABAKIA:. EAJ-PNVk aurkeztutako 2.go (HIRIGINZA-LURRALDE ANTOLAMENDUA) emendakina ez da onartzen

Hirugarren emendakina:

Erdikohaitzan behin betio kantina eta komunak egiteko Plan Berezia eta proiektua.

Hirigintza eta lurralde antolamendua

Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
KONTU-SAIL BERRIA	Erdikohaitzan behin betiko kantina eta komunak egiteko Plan Berezia eta proiektua.	- €	20.000 €
Gutxitzea proposatzen den kontu-saila:			
1 0100.622.173.00.01 Santiago hondartzako arrapala azpiko eraikinaren obra (-20.000 €)			

Aldeko botoak: 7 boto (EAJ-PNV)

Kontrako botoak: 9 boto (EH BILDU)

Abstentzioak: boto 1 (ES-SV)

ERABAKIA:. EAJ-PNVk aurkeztutako 3.go (HIRIGINZA-LURRALDE ANTOLAMENDUA) emendakina ez da onartzen

Laugarren emendakina:

Zumaiaiko lokal publikoen azterketa

Hirigintza eta lurralde antolamendua

Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
KONTU-SAIL BERRIA	Zumaiaiko lokal publikoen azterketa.	- €	15.000 €
Gutxitzea proposatzen den kontu-saila:			
1 0100.622.173.00.01 Santioko arrapalako obra (-15.000 €)			

Aldeko botoak: 8 boto (EAJ-PNV; 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 9 boto (EH BILDU)

Abstentzioak: 0 boto



ERABAKIA:. EAJ-PNVk aurkeztutako 4.go (HIRIGINZA-LURRALDE ANTOLAMENDUA) emendakina ez da onartzen

Beste emendakina, bosgarrena

Zuntz optikoaren hedapena herriaren erdigunean, proiektuaren idazketa.

Hirigintza eta lurralde antolamendua

Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
KONTU-SAIL BERRIA	Zuntz optikoaren hedapena herriaren erdigunean, proiektuaren idazketa.	- €	16.000 €
Gutxitzea proposatzen den kontu-saila:		1 0200.481.326.00.02 Txiribuelta (-16.000 €)	

Aldeko botoak: 7 boto (EAJ-PNV)

Kontrako botoak: 9 boto (EH BILDU)

Abstentzioak: boto 1 (ES-SV)

ERABAKIA:. EAJ-PNVk aurkeztutako 5.go (HIRIGINZA-LURRALDE ANTOLAMENDUA) emendakina ez da onartzen

Seigarren emendakina:

TAO zerbitzuaren hobekuntzak.

Hirigintza eta lurralde antolamendua

Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
KONTU-SAIL BERRIA	TAO zerbitzuaren hobekuntzak.	- €	20.000 €
Gutxitzea proposatzen den kontu-saila:		1 0100.622.173.00.01 Santioko arrapalako obra (-20.000 €)	

Aldeko botoak: 7 boto (EAJ-PNV)

Kontrako botoak: 9 boto (EH BILDU)

Abstentzioak: boto 1 (ES-SV)

ERABAKIA:. EAJ-PNVk aurkeztutako 6.go (HIRIGINZA-LURRALDE ANTOLAMENDUA) emendakina ez da onartzen



Zazpigarren emendakina:
Baserri bideak eta seinalizazioa.

Hirigintza eta lurralde antolamendua

Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
1 1000.601.414.00.01	Baserri bideak eta seinalizazioa.	8.000 €	30.000 €
Gutxitzea proposatzen den kontu-saila:			
	1 0100.622.173.00.01 Santioko arrapalako obra		(-22.000 €)

Aldeko botoak: 7 boto (EAJ-PNV)

Kontrako botoak: 9 boto (EH BILDU)

Abstentzioak: boto 1 (ES-SV)

ERABAKIA:. EAJ-PNVk aurkeztutako 7.go (HIRIGINZA-LURRALDE ANTOLAMENDUA) emendakina ez da onartzen

Hurrengo emendakina izango da,
Irigarritasuna sustatzeko obrak

Hirigintza eta lurralde antolamendua

Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
1 0100.601.134.00.02	Irigarritasuna sustatzeko obrak	0 €	50.000 €
Gutxitzea proposatzen den kontu-saila:			
	1 0100.622.173.00.01 Santioko arrapalako obra		(-50.000 €)

Aldeko botoak: 7 boto (EAJ-PNV)

Kontrako botoak: 9 boto (EH BILDU)

Abstentzioak: boto 1 (ES-SV)

ERABAKIA:. EAJ-PNVk aurkeztutako 8.go(HIRIGINZA-LURRALDE ANTOLAMENDUA) emendakina ez da onartzen

Hurrengo izango da
Estazio auzoan ordenazio berriaren proiektuaren idazketa.



Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
KONTU-SAIL BERRIA	Estazio auzoan ordenazio berriaren proiektuaren idazketa.	- €	15.000 €
Gutxitzea proposatzen den kontu-saila:			
		1 0100.643.151.00.01 Hirigintza azterlanak	(-15.000 €)

Aldeko botoak: 8 boto (EAJ-PNV ; 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 9 boto (EH BILDU)

Abstentzioak: boto 0

ERABAKIA:. EAJ-PNVk aurkeztutako 9.go (AUZOAK INDARTU) emendakina ez da onartzen

Hurrengo puntua:

Oikiako bidegorri proiektuaren idazketa.

Auzoak indartu

Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
KONTU-SAIL BERRIA	Oikiako bidegorri proiektuaren idazketa.	- €	15.000 €
Gutxitzea proposatzen den kontu-saila:			
		1 0100.643.151.00.01 Hirigintza azterlanak	(-15.000 €)

Aldeko botoak: 16 boto (9 EH BILDU; 7 EAJ-PNV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: boto 1 (ES-SV)

ERABAKIA:. EAJ-PNVk aurkeztutako 10. (AUZOAK INDARTU) emendakina onartzen da.

Hurrengo emendakina:

Etxezarreta kaleko bulebarizazio proiektua, irisgarritsuna hobetu eta aparkalekuak sortu,

Auzoak indartu



Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
KONTU-SAIL BERRIA	Etxezarreta kaleko bulebarizazio proiektua, irisgarritasuna hobetu eta aparkalekuak sortu.	- €	102850 €
Gutxitzea proposatzen den kontu-saila:			
	1 0800.120.153.41.00/121.153/160.153 obretako brigada		(-19448 €)
			Irisgarritasuna partida (-50.000 €)
	1 0100.622.173.00.01 Santioko arrapalako obra		(-12.850€)
	1 1200.481.231.50.03 Emakumeen etxea dinamizatzaile		
kontratazioa (-20552 €)			

Aldeko botoak: 7 boto (EAJ-PNV)

Kontrako botoak: 9 boto (EH BILDU)

Abstentzioak: boto 1 (ES-SV)

ERABAKIA:. EAJ-PNVk aurkeztutako 11. (AUZOAK INDARTU) emendakina ez da onartzen.

Hurrengo emendakina:

Axular ibiltokiko bidegorria egokitu

Auzoak indartu

Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
KONTU-SAIL BERRIA	Axular Ibiltokiko bidegorria egokitu.	- €	63081 €
Gutxitzea proposatzen den kontu-saila:			
	1 0200.481.335.20.08 UKT dirulaguntza(Baleike/Hitza)		(-3.715 €)
	1 0800.120.153.41.00/121.153.41/160.153.41 Obretako brigada		(-59.366 €)

Aldeko botoak: 7 boto (EAJ-PNV)

Kontrako botoak: 9 boto (EH BILDU)

Abstentzioak: boto 1 (ES-SV)

ERABAKIA:. EAJ-PNVk aurkeztutako 12. (AUZOAK INDARTU) emendakina ez da onartzen.

Beste emendakina:

San Telmo kalea eraberritze lanak,



Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
KONTU-SAIL BERRIA	San telmo kalea eraberritze lanak.	- €	69.464 €
Gutxitzea proposatzen den kontu-saila:			
1 0800.120.132.01.00/121.132.01.00/160.132.01.01 Udaltzaingoa			(-69.464 €)

Aldeko botoak: 8 boto (7 EAJ-PNV; 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 9 boto (EH BILDU)

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:. EAJ-PNVk aurkeztutako 13. (AUZOAK INDARTU) emendakina ez da onartzen.

Hurrengo emendakina:

Herriko merkataritzaren azterketa eta diagnostia,

Merkataritza

Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
KONTU-SAIL BERRIA	Herriko merkataritzaren azterketa eta diagnostia.	- €	12.000 €
Gutxitzea proposatzen den kontu-saila:			
1 0200.481.326.00.02 Txiribuelta			(-8 000 €)
1 1000.500.929.00.01 Kreditu globala			(-4.000 €)

Aldeko botoak: 7 boto (EAJ-PNV)

Kontrako botoak: 9 boto (EH BILDU)

Abstentzioak: boto 1 (ES-SV)

ERABAKIA:. EAJ-PNVk aurkeztutako 14. (MERKATARITZA) emendakina ez da onartzen

Alderdi honetako azken emendakin,
LED argiteria, 2. Fasea.



Kontu-saila	Deskribapena	Aurrekontu proiektua	Zuzenketa proposamena
KONTU-SAIL BERRIA	LED argiteria, 2. fasea.	- €	14.000 €
Gutxitzea proposatzen den kontu-saila:			
1 0100.643.151.00.01 hirigintza azterlanak (-14.000 €)			

Aldeko botoak: 17boto (9 EH BILDU; 7 EAJ-PNV; 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: boto 0

ERABAKIA:. EAJ-PNVk aurkeztutako 15. (INGURUMENA, LARRIALDI KLIMATIKOA) emendakina onartzen da.

Orain pasatzen gara, EH BILDUK auto emendakina aurkezten duena, baldin eta EAJ-ren emendakinaren finantzazio partida aldatzen ez bada.

Aldatu ez denez, guk partida hau aurkezten dugu da lehenago komentatu duguna ados gaude Zuntz optikoaren proiektuarekin baina partida ez genuen nahi hortik kentzea eta proposatzen dugu hirigintza azterlanetik kentzea, Bozkatuko dugu edo zerbait badaukazue esateko edo ...

Aldeko bozkek? 17 bozka (9 EH BILDU; 7 EAJ-PNV; 1 ES-SV)

Kontrako bozkek? 0

Abstentzioak? 0

Aldeko botoak: 17boto (9 EH BILDU; 7 EAJ-PNV; 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: boto 0

ERABAKIA:. EH-BILDUK aurkeztutako auto-emendakina onartzen da.

EAJ-PNV-ek aurkeztutako emendakinak erretiratu egin dira,

Honekin emendakinen txanda bukatutzat ematen dugu

Ondoren, 2020ko aurrekontuak bozkatzera pasako gara,



Zumaia Udala

2019IAKU0014-A19/9535

Aldeko botoak: 9 boto (EH BILDU)

Kontrako botoak: 7 boto (EAJ-PNV)

Abstentzioak: boto 1 (ES-SV)

ERABAKIA:. 2020. Ekitaldirako aurrekontu orokorrak onartu dira behin-behineko izaerarekin.

3.2.- 6/2019; 7/2019; 8/2019; 9/2019 ERREPARO ORRIEN ETA HAUEN ALKATE DEKRETUEN ERANTZUNAREN BERRI EMATEA.

KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (6/2019):

AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileak, Zumaia Udaleko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:

KONTRATUEN ERANSKINA

Enpresa	Kontratatutako zerbitzua	Data Kontratua	Iraupena	data amaitu
GESMUNPAL	Recaudación ejecutiva	2010/07/26	2+2	2014/07/26
Eulen	Kudeaketa Branka y SAD	2009/02/01	1 + 1	2011/02/01
UNI 2	Limpieza edificios-ampliación	2009/10/19	1 año	2010/11/19
UNI 2	Limpieza edificios municipales	2009/07/01	1+1	2011/07/01
Harrespil S.L.	Hilerria-kudeaketa	2005/03/01	1+1	2007/03/01
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	2009/11/05	2+1	2012/11/05
Urbiet&Egaña	Aita Mari Zinea	2011/04/04 (luzapena)		2011/04/04
Erreka	Ate automatikoen mantenimendua	2016/10/04		2017/10/01
SCHINDLER, S.A.	Igogailuen mantennua	2016/04/01	1	2017/04/01
ETXEA Climatizaciones	Udaletxe eta Alondegiko klimatizazioa	2014/02/15	1	2015/02/15
Liberty Seguros	Aseguru pribatua	2016/05/26	1	2017/05/26
Euskaltel, S.A.	Udaleko eta patronatuko telefonoak	2016/04/20	1+1	2018/04/20
LV Zumaia UTE	Kale garbiketa	2016/01/11	1+1	2018/01/11
Arazi IKT, S.L.	Algorri kudeaketa	2016/04/20	1+1	2018/04/20
Serkonten	Edukiontzi higienikoak	2016/11/01	1	2017/11/01
CPU Anticimex	Desratizazioa	2016/10/01	1	2017/10/01

a) Aplikagarria zaizkion arauak:



a.1) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

Bigarren xedapen gehigarria. Toki erakundeetarako kontratazio-arau bereziak.

1. Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-

kontratuak, zerbitzu kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

"67. artikulua. Legezketasunaren kontrola."

1.- Kontu-hartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haien eskubide eta betebeharr ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek esku hartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharr ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretiazkoa.

b) Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoan erabilpenerako mankomunatuerei erantsiko zaie.

"70. artikulua. Erreparoa."

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere erreparoa idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.



3.- Erreparoa gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtsezko beharkizun** edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Erreparoa ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraukortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua:

“213. artikulua. Barneko kontrola.”

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiarri, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Aital honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitu duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
01/07/2019	2019-029	URBIETA - EGAÑA	Aita Mari Aretoa-Kudeaketa-2 Hiruhilabetea	8.274,00
31/07/2019	CAFR900478	CPU ANTICIMEX	UZTAILA - CONTRATO DESRATIZACION	605,99



			MUNICIPAL	
23/07/2019	01U88KB	EUSKALTEL S.A.	EPAITEGIA: 2019/06/22 - 2019/07/21	26,31
23/07/2019	01U88LA	EUSKALTEL S.A.	MUSIKA : 2019/06/22 - 2019/07/21	21,78
23/07/2019	01U89C3	EUSKALTEL S.A.	KONTU-HARTZAILETZA: 2019/06/22 - 2019/07/21	5,56
23/07/2019	01U89C7	EUSKALTEL S.A.	KULTURA: 2019/06/22 - 2019/07/21	62,55
23/07/2019	01U89C6	EUSKALTEL S.A.	LUDETEKA: 2019/06/22 - 2019/07/21	22,21
23/07/2019	01U89C8	EUSKALTEL S.A.	TURISMO: 2019/06/22 - 2019/07/21	49,05
23/07/2019	01U89C9	EUSKALTEL S.A.	HIRIGINTZA: 2019/06/22 - 2019/07/21	54,99
23/07/2019	01U89CA	EUSKALTEL S.A.	BRIGADA: 2019/06/22 - 2019/07/21	79,50
23/07/2019	01U89CC	EUSKALTEL S.A.	BRANKA: 2019/06/22 - 2019/07/21	34,59
23/07/2019	01U89CD	EUSKALTEL S.A.	UDALTAINGOA: 2019/06/22 - 2019/07/21	65,58
23/07/2019	01U89CE	EUSKALTEL S.A.	ZINEGOTZIAK: 2019/06/22 - 2019/07/21	80,21
23/07/2019	01U89CF	EUSKALTEL S.A.	UDALA: 2019/06/22 - 2019/07/21	374,60
23/07/2019	01U871U	EUSKALTEL S.A.	GAZTETXOLA: 2019/06/22 - 2019/07/21	17,21
23/07/2019	01U871V	EUSKALTEL S.A.	FORONDA: 2019/06/22 - 2019/07/21	1,21
23/07/2019	01U8D4P	EUSKALTEL S.A.	INTERNET: 2019/06/22 - 2019/07/21	94,14
03/08/2019	3632262	EULEN SERVICIOS SOCIO SANITARIOS	UZTAILA NO DEPENDIENTES	5.400,94
31/07/2019	3631158	EULEN SERVICIOS SOCIO SANITARIOS	UZTAILA - EGUNEKO ZENTROAREN KUDEAKETA ZERBITZUENGATIK	20.247,58
06/08/2019	19A0007	UTE LV ZUMAIA	Uztailan Zumaia udalerrian eginiko kale-garbitzeta zerbitzua	29.107,71
01/08/2019	20F046051	SERKONTEN	EDUKINGAILU HIGIENIKOAK : 2019/08/01 - 2019/10/31	410,63
31/07/2019	L 190199	ARAZI IKT, S.L.	UZTAILA Algorri natur baliabideen interpretazio zentroaren kudeaketa	4.639,44
				69.675,78

f) Gastu onarpena baino handiagoa da faktura

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIKOA BEZA BARNE
19/06/2019	190054	MADERAS MENUR, S.L.	TRANSPORTE - MI. Pasarela articulada de dimensiones 1500 mm ancho x 1150 mm de avance	847,00
25/06/2019	439	K1 EKOPAISAIA, S.L.L.	Santio Hondartzako kantinaren erabilerraztasuna	10.537,29
30/06/2019	28/19	AITZA ERAIKUNTZAK ETA ERREFORMAK, S.L.	OBRA: PLAYA DE SANTIYO-TRABAJOS REALIZADOS SEGUN PRESUPUESTO N: 43	8.917,70
28/06/2019	1115	BOMBAS E INSTALACIONES GONZALEZ S.L.	Bombeo Chiringuito playa de Santiago	14.443,37
30/06/2019	A19/125	Talleres Electricos Zumaia S.L.	EN SANTIXO INSTALACION ELECTRICA DE ALUMBRADO- 1ª CERTIFICAICON	10.996,48
				45.741,84

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Bestalde aipatu beharra dago hilero ordaintzen den kopuruaren garrantzia kuantitatiboa kontuan izanda, eraikuntza publikoen garbiketaren kontratua. Kontratu honek lehenatasuna eduki beharko luke kontratuen



b) Mementoz, zerrendatutako faktura guztien ordainketaren izapidetzea etengo da Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

941/2019 ALKATE DEKRETUA

AURREKARIAK

2019ko Irailaren 3an kontu-hartzaileak honako erreparo orria jakinarazi dit (6/2019)

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, ohartarazten du Legezko esleipen prozedura jarraitu ez duten fakturak iristeaz gain, indarrean ez dauden kontratuak dituztenak ere iritsi direla.

Eta, honako faktura hauen ordainketaren izapidetzea eten du:

b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIKOA BEZA BARNE
01/07/2019	2019-029	URBIETA - EGAÑA	Aita Mari Aretoa-Kudeaketa-2 Hiruhilabetea	8.274,00
31/07/2019	CAFR900478	CPU ANTICIMEX	UZTAILA - CONTRATO DESRATIZACION MUNICIPAL	605,99
23/07/2019	01U88KB	EUSKALTEL S.A.	EPAITEGIA: 2019/06/22 - 2019/07/21	26,31
23/07/2019	01U88LA	EUSKALTEL S.A.	MUSIKA : 2019/06/22 - 2019/07/21	21,78
23/07/2019	01U89C3	EUSKALTEL S.A.	KONTU-HARTZAILAZA: 2019/06/22 - 2019/07/21	5,56
23/07/2019	01U89C7	EUSKALTEL S.A.	KULTURA: 2019/06/22 - 2019/07/21	62,55
23/07/2019	01U89C6	EUSKALTEL S.A.	LUDOTEKA: 2019/06/22 - 2019/07/21	22,21
23/07/2019	01U89C8	EUSKALTEL S.A.	TURISMO: 2019/06/22 - 2019/07/21	49,05
23/07/2019	01U89C9	EUSKALTEL S.A.	HIRIGINTZA: 2019/06/22 - 2019/07/21	54,99
23/07/2019	01U89CA	EUSKALTEL S.A.	BRIGADA: 2019/06/22 - 2019/07/21	79,50
23/07/2019	01U89CC	EUSKALTEL S.A.	BRANKA: 2019/06/22 - 2019/07/21	34,59
23/07/2019	01U89CD	EUSKALTEL S.A.	UDALZAIINGOA: 2019/06/22 - 2019/07/21	65,58
23/07/2019	01U89CE	EUSKALTEL S.A.	ZINEGOTZIAK: 2019/06/22 - 2019/07/21	80,21
23/07/2019	01U89CF	EUSKALTEL S.A.	UDALA: 2019/06/22 - 2019/07/21	374,60
23/07/2019	01U871U	EUSKALTEL S.A.	GAZTETXOLA: 2019/06/22 - 2019/07/21	17,21
23/07/2019	01U871V	EUSKALTEL S.A.	FORONDA: 2019/06/22 - 2019/07/21	1,21
23/07/2019	01U8D4P	EUSKALTEL S.A.	INTERNET: 2019/06/22 - 2019/07/21	94,14
03/08/2019	3632262	EULEN SERVICIOS SOCIOANITARIOS	UZTAILA NO DEPENDIENTES	5.400,94
31/07/2019	3631158	EULEN SERVICIOS SOCIOANITARIOS	UZTAILA - EGUNEKO ZENTROAREN KUDEAKETA ZERBITZUENGATIK	20.247,58
06/08/2019	19A0007	UTE LV ZUMAIA	Uztailan Zumaia udalerrian eginiko kale-garbitzua zerbitzua	29.107,71
01/08/2019	20F046051	SERKONTEN	EDUKINGAILU HIGIENIKOAK : 2019/08/01 - 2019/10/31	410,63
31/07/2019	L 190199	ARAZI IKT, S.L.	UZTAILA Algorri natur baliabideen interpretazio zentroaren kudeaketa	4.639,44
				69.675,78



f) Gastu onarpena baino handiagoa da faktura

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
19/06/2019	190054	MADERAS MENUR, S.L.	TRANSPORTE - MI. Pasarela articulada de dimensiones 1500 mm ancho x 1150 mm de avance	847,00
25/06/2019	439	K1 EKOPAISAIA, S.L.L.	Santio Hondartzako kantinaren erabilerraztasuna	10.537,29
30/06/2019	28/19	AITZA ERAIKUNTZAK ETA ERREFORMAK, S.L.	OBRA: PLAYA DE SANTIYO-TRABAJOS REALIZADOS SEGUN PRESUPUESTO N: 43	8.917,70
28/06/2019	1115	BOMBAS E INSTALACIONES GONZALEZ S.L.	Bombeo Chiringuito playa de Santiago	14.443,37
30/06/2019	A19/125	Talleres Electricos Zumaia S.L.	EN SANTIXO INSTALACION ELECTRICA DE ALUMBRADO- 1ª CERTIFICAICON	10.996,48
				45.741,84

ERABAKIA:

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut

ALKATEA

KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (7/2019):**AURREKARIAK:**

Kontu-hartzaileak, Zumaiaiko Udaleko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:

KONTRATUEN ERANSKINA

Enpresa	Kontratututako zerbitzua	Data Kontratua	Iraupena	data amaitu
GESMUNPAL	Recaudación ejecutiva	2010/07/26	2+2	2014/07/26
Eulen	Kudeaketa Branka y SAD	2009/02/01	1 + 1	2011/02/01
UNI 2	Limpieza edificios-ampliación	2009/10/19	1 año	2010/11/19
UNI 2	Limpieza edificios municipales	2009/07/01	1+1	2011/07/01
Harrespil S.L.	Hilerria-kudeaketa	2005/03/01	1+1	2007/03/01
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	2009/11/05	2+1	2012/11/05
Urbiet&Egaña	Aita Mari Zinea	2011/04/04 (luzapena)		2011/04/04



Erreka	Ate automatikoen mantenimendua	2016/10/04		2017/10/01
SCHINDLER, S.A.	Igogailuen mantennua	2016/04/01	1	2017/04/01
ETXEA Climatizaciones	Udaletxe eta Alondegiko klimatizazioa	2014/02/15	1	2015/02/15
Liberty Seguros	Aseguru pribatua	2016/05/26	1	2017/05/26
Euskaltel, S.A.	Udaleko eta patronatuko telefonoak	2016/04/20	1+1	2018/04/20
LV Zumaia UTE	Kale garbiketa	2016/01/11	1+1	2018/01/11
Arazi IKT, S.L.	Algorri kudeaketa	2016/04/20	1+1	2018/04/20
Serkonten	Edukiontzi higienikoak	2016/11/01	1	2017/11/01
CPU Anticimex	Desratizazioa	2016/10/01	1	2017/10/01

a) Aplikagarria zaizkion arauak:

a.1) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

Bigarren xedapen gehigarria. Toki erakundeetarako kontratazio-arau bereziak.

1. **Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian**, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

“ 67. artikulua. Legezkotasunaren kontrola.”

1.- Kontu-hartze-eginkizunaren helburua, haren legezkotasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek esku hartuko ditu:



a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretzakoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.**

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoaren erabilpenerako mankomunatuak erantsiko zaie.

“70. artikulua. Erreparoa.”

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere erreparoa idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Erreparoa gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtsezko beharkizun** edo izapidetak alde batetara utzi direnean.

4.- Erreparoa ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua:

“213. artikulua. Barneko kontrola.”

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiari, aurreko lerokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei



Zumaia Udala

2019IAKU0014-A19/9535

bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketan aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitu duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

01/02/2019	89F0116433	SERKONTEN	EDUKINGAILU HIGIENIKOAK : 2019/02/01 - 2019/04/30	410,63
30/06/2019	1900130	HARRESPIL	EKAINA Zumaia Hilerriko Zerbitzua	3.533,47
31/08/2019	3344167464	SCHINDLER, S.A.	ABUZTUA Sagarbide	72,19
30/09/2019	3344197230	SCHINDLER, S.A.	IRAILA Algorri	64,69
30/09/2019	3344197231	SCHINDLER, S.A.	IRAILA Alondegia	102,18
30/09/2019	3344197232	SCHINDLER, S.A.	IRAILA Ardantzabide	64,69
30/09/2019	3344197233	SCHINDLER, S.A.	IRAILA E.P.A.	87,18
30/09/2019	3344197234	SCHINDLER, S.A.	IRAILA Foronda	72,19
30/09/2019	3344197235	SCHINDLER, S.A.	IRAILA Jubilatuen etxea	72,19
30/09/2019	3344197236	SCHINDLER, S.A.	IRAILA Jadarreko igogailuak	245,09
30/09/2019	3344197237	SCHINDLER, S.A.	IRAILA Aita Mari Ikastetxea	72,19
30/09/2019	3344197238	SCHINDLER, S.A.	IRAILA Sagarbide	72,19
30/09/2019	3344197239	SCHINDLER, S.A.	IRAILA Udaletxea	72,19
30/09/2019	3344197240	SCHINDLER, S.A.	IRAILA Torreberri	72,19
21/09/2019	2019/00090	Randez Dominguez Andoni	3. HIRUHILEKOA: Aita Mari ikastetxea, Foronda eta Sagarbideko berogailuen mantenua	1.224,59
21/09/2019	2019/00089	Randez Dominguez Andoni	3. HIRUHILEKOA: Jubilatuen etxeko berogailuaren mantenua	356,71
				60.617,00

e) Gastua onartzea eta esleitzea falta zaizkie:

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
16/09/2019	190244	K1 EKOPAISAIA S.L.L.	ARTADIKO LURSAILA EGOKITZEA	2.392,17
20/09/2019		GRUP VIADA MATARÓ, S.L.	TR183 - MESA RECTANGULAR PLEGABLE (183 x 76 CM)	3.643,16
				6.035,33

ERABAKIA:



Zumaiko Udala

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut

2019IAKU0014-A19/9535

ALKATEA

6/2019; 7/2019; 8/2019; 9/2019, , dira iraungita dauden kontratuak dira eta alkate dekretuen berri ematen da

Hurrengo puntua da:

3.3.- 2019KO EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.



Zumaia Udala

2019IAKU0014-A19/9535

ZUMAIKO UDAL AURREKONTUKO GASTUAREN EXEKUZIOA 2019/11/07an

AURREKO BILERATIK

KAPITULOA	AURREKONTUA	BAIMENDUA	ERABILIA	OBLIGAZIOAK	%	ORDAINKETAK	ONARTUTAKOAK
1.- PERTSONALA	3.461.341,00	2.187.545,95	2.187.545,95	2.187.545,95	63,20%	2.187.545,95	617.524,31
2.- EROSKETAK	6.215.682,14	4.414.213,30	4.414.210,88	3.817.057,18	61,41%	3.394.577,84	1.099.047,19
3.- FINANTZA GASTUAK	17.382,15	10.277,39	10.277,39	10.277,39	59,13%	10.277,39	10.277,39
4.- DIRULAG.ARRUNTAK	1.905.333,06	1.260.289,58	1.260.289,58	1.166.930,19	61,25%	997.239,33	128.885,08
5.- KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKO USTEKABEAK	48.761,50	0,00	0,00	0,00	0,00%	0,00	0,00
GASTU ARRUNTA	11.648.499,85	7.872.326,22	7.872.323,80	7.181.810,71	61,65%	6.589.640,51	1.855.733,97
6.- INBERTSIOAK	4.816.396,02	1.987.474,58	1.982.426,20	1.430.635,82	29,70%	1.276.604,08	415.320,98
7.- KAPITAL TRANSFERENTZIAK	133.000,00	100.000,00	100.000,00	100.000,00	75,19%	100.000,00	0,00
8.- FINANTZ AKTIBOAK							0,00
9.- FINANTZ PASIBOAK	123.372,00	92.420,22	92.420,22	92.420,22	74,91%	92.420,22	92.420,22
KAPITAL GASTUA	5.072.768,02	2.179.894,80	2.174.846,42	1.623.056,04	32,00%	1.469.024,30	507.741,20

GUZTIRA 16.721.267,87 10.052.221,02 10.047.170,22 8.804.866,75 52,66% 8.058.664,81 2.363.475,17

ZUMAIKO UDAL AURREKONTUKO DIRU-SARREREN EXEKUZIOA 2019/11/07an

KAPITULOA	B. betiko aurrek.	ESKUBIDE ONARTU GARBIAK		BILKETA LIKIDOA		KOBRAZTEKO		Itzulketak	AURREKO BILERATIK DIFERENTZIAK
		Eskubide onartu garbiak	%	Bilketa likidoa	%	Kobratzeko	%		
1.- ZUZENEKO ZERGAK	3.105.800,00	3.060.759,75	98,55%	2.496.430,81	81,56%	564.328,94	18,44%	24.634,92	1.669.975,55
2.- ZEHARKAKO ZERGAK	210.000,00	221.588,76	105,52%	158.879,07	71,70%	62.709,69	28,30%	450,00	84.019,67
3.- TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	1.897.752,00	1.289.837,99	67,97%	1.175.453,54	91,13%	114.384,45	8,87%	568,01	474.225,56
4.- TRANSFERENTZI ARRUNTAK	7.759.825,00	5.929.542,54	76,41%	5.929.542,54	100,00%	0,00	0,00%	0,00	1.895.672,56
5.- ONDARE SARRERAK	46.277,00	49.480,83	106,92%	36.324,16	73,41%	13.156,67	26,59%	0,00	34.759,30
SARRERA ARRUNTAK	13.019.654,00	10.551.209,87	81,04%	9.796.630,12	92,85%	754.579,75	7,15%	25.652,93	4.158.652,64
6.- INBERTSIO ERREALEN BESTERENG.	120.000,00	194.156,98	161,80%	194.156,98	100,00%	0,00	0,00%	0,00	194.156,98
7.- KAPITAL TRANSFERENTZIAK	65.000,00	72.891,71	112,14%	4.933,76	6,77%	67.957,95	93,23%	0,00	4.933,76
8.- FINANTZA AKTIBOAK	3.012.394,87	5.709,66	0,19%	3.455,86	60,53%	2.253,80	39,47%	0,00	3.455,86
9.- FINANTZA PASIBOAK	504.219,00	504.219,00	100,00%	504.219,00	100,00%	0,00	0,00%	0,00	0,00
KAPITAL SARRERAK	3.701.613,87	776.977,35	20,99%	706.765,60	90,96%	70.211,75	9,04%	0,00	202.546,60

GUZTIRA 16.721.267,87 11.328.187,22 67,75% 10.503.395,72 92,72% 824.791,50 7,28% 25.652,93 4.361.199,24



Taula hemen daukazue, datuak hemen daude, ez dakit, zerbait komentatu nahi duzuen edo ez du biderik ematen, informatuta geratzen zarete.

3.4.-2019KO 3. HIRUHILABETEKO ORDAINKETAREN BATAZ BESTEKO EPEAREN BERRI EMATEA.

ORDAINKETEN BATEZ BESTEKO EPEA (OBBE)							
Toki entitatea: ZUMAIA							
Ekitaldia: 2019							
Hiruhilekoa: Hiruhilabetea 3							
Entitatea		Ordaindutako eragiketak		Ordaindu gabeko eragiketak		OBBE	Oharrak
		Ratioa	Zenbatekoa	Ratioa	Zenbatekoa		
81	ZUMAIA	7,85	1.883.555,11	7,66	103.439,95	7,84	
381	ZUMAIKO KIROL PATRONATUA	16,37	177.854,65	46,46	74.254,42	25,23	
OBBE globala		8,58	2.061.409,76	23,87	177.694,37	9,80	

Hau beti bezala esan faktura kontabilizatzen denetik egiten dela eta ez faktura ailegatzten denetik, tamalez, informatuta geratzen zarete

Hurrengo puntua:

3.5.- UDALAREN 2019KO 13., 14., 15., 16., 17., 18., 20., ETA KIROL PATRONATUKO 1. KREDITU ALDAKETEN BERRI EMATEA.

Udalaren 2019ko 13. Kreditu aldaketa

ERANSKINA

2019ko aurrekontuan kredituak gaitzeko proposamena

Gastuen partida	Azalpena	Zenbatekoa
1 0300.226.334.01.95 2019	MUSIKALDIA	3.500,00
GAITU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA		3.500,00

2019ko aurrekontuko kreditu gaikuntzaren finantzaketa

Kod.	Sarrerren partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.399.334.01.01 2019	MUSIKALDIA	3.500,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			3.500,00

**KODEEN AZALPENA**

- a) Pertsona natural edo juridikoen ekarpenak edo ekarpen konpromisoak
- b) Ondare ondasunen besterentzeak
- c) Zerbitzuak ematea
- d) Maileguen itzulketa
- e) Bestelako ekarpenak
- f) Itxitako ekitaldietako ordainketen itzulketak
- g) Tributu izaerako sarrera handiagoak (soilik kreditu zabalgarrietarako edota kreditu globalerako)

Udalaren 2019ko 14. Kreditu aldaketa**KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA**

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.624.132.01.01 2018	UDALTAINGOARENTZAT IBILGAILUAK	23.315,70	9.300,00	32.615,70
GUZTIRA		23.315,70	9.300,00	32.615,70

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.920.00.01 2019	DIRUZAINZA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK	9.300,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			9.300,00

KODEEN AZALPENA



- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Zumaia, 2019ko irailaren 27an
Alkatea

Udalaren 2019ko 15. Kreditu aldaketa

ERANSKINA

2019ko aurrekontuan kredituak gaitzeko proposamena

Gastuen partida	Azalpena	Zenbatekoa
1 0300.226.338.00.91 2019	EUSKAL JAIK	1.620,00
GAITU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA		1.620,00

2019ko aurrekontuko kreditu gaikuntzaren finantzaketa

Kod.	Sarrerren partida	Azalpena	Zenbatekoa
g	2 0000.399.338.00.08 2019	EUSKAL JAIK	1.620,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			1.620,00

KODEEN AZALPENA

- a) Pertsona natural edo juridikoen ekarpenak edo ekarpen konpromisoak
- b) Ondare ondasunen besterentzeak
- c) Zerbitzuak ematea
- d) Maileguen itzulketa
- e) Bestelako ekarpenak
- f) Itxitako ekitaldietako ordainketen itzulketak
- g) Tributu izaerako sarrera handiagoak (soilik **kreditu zabalgarrietarako** edota kreditu globalerako)



Udalaren 2019ko 16. Kreditu aldaketa

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.622.132.01.02 2019	FIELATOAN INBERTSIOAK	130.000,00	81.232,55	211.232,55
1 1000.481.230.20.01 2019	UHOLDEETARAKO DIRU-LAGUNTZA	0,00	2.000,00	2.000,00
GUZTIRA		130.000,00	83.232,55	213.232,55

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.920.00.01 2019	DIRUZAINZTA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK	83.232,55
FINANTZAKETA GUZTIRA			83.232,55

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Zumaia, 2019ko urriaren 4an

Alkatea



Udalaren 2019ko 17. Kreditu aldaketa

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.212.134.00.01 2019	IGOGAILU PUBLI MANT.JADARRE/ARDANTZA	4.300,00	6.000,00	10.300,00
1 0100.211.333.10.01 2019	AITA MARI ARETOAREN KONPONKETAK ETA MANT	2.500,00	10.000,00	12.500,00
GUZTIRA		6.800,00	16.000,00	22.800,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.920.00.01 2019	DIRUZAINZA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK	16.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			16.000,00

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Zumaia, 2019ko urriaren 10ean

Alkatea



Udalaren 2019ko 18. Kreditu aldaketa

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.622.321.10.04 2019	AITA MARI HERRI ESKOLAKO PATIOA	295.000,00	168.000,00	463.000,00
1 0100.221.153.41.11 2019	TRESNAK ETA ERREMINTAK	6.500,00	5.000,00	11.500,00
1 1000.369.920.10.02 2019	ERKIBEKO INTERESAK	0,00	1.000,00	1.000,00
GUZTIRA		301.500,00	174.000,00	475.500,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.920.00.01 2019	DIRUZAINZA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK	174.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			174.000,00

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Zumaia, 2019ko urriaren 18an

Alkatea



Udalaren 2019ko 20. Kreditu aldaketa

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.601.153.21.03 2019	OIKIAKO ESKOLA ONDOKO URBANIZAZIOA	407.000,00	41.500,00	448.500,00
1 0300.226.334.00.92 2019	HAINBAT GASTU BEOBIDE	3.000,00	3.125,00	6.125,00
GUZTIRA		410.000,00	44.625,00	454.625,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.920.00.01 2019	DIRUZAINZTA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK	44.625,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			44.625,00

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Zumaia, 2019ko urriaren 25ean

Alkatea



Udalaren 2019ko 13., 14., 15., 16., 17., 18., 20., eta kirol patronatuko 1. kreditu aldaketan berri emanda

3.6.- UDALAREN 20., ETA KIROL PATRONATUAREN 1. KREDITU ALDAKETAREN ONDOREN, AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA GASTU ARAUA EZ BETETZEAREN KOMUNIKAZIOAREN BERRI EMATEA.

2019KO AURREKONTUKO EGONKORTASUN, FINANTZEN IRAUNKORTASUNA ETA GASTU ARAUAREN TXOSTENA: TXOSTENAK AURREKONTU EGONKORTASUNA, ETA GASTU ARAUA BETETZEN EZ DUELAKO UDALBATZARI KOMUNIKAZIOA.

AURREKARIAK

1/2013 foru arauak eskatzen duen bezala, 2019ko aurrekontuarekin batera egonkortasun txostena aurkeztu genuen, bertan azaltzen zen bezala 380.847 euroko defizita geneukan aurrekontu egonkortasuneko atalean.

Ondoren, 2019ko aurrekontua martxan dagoenetik hainbat kreditu aldaketa egin dira, 1/2013 foru arauak eskatzen duen bezala, kreditu aldaketa bakoitzarekin batera egonkortasun txostena bete da.

KOMUNIKAZIOA

Aurrekontua onartu zen momentutik hasi ginen defizita izaten, eta defizit hori kreditu aldaketak diruzaintza gerakinarekin finantzatzearen ondorioz igo egin da. Memento honetan, Udalaren 20.kreditu aldaketaren ondoren, 3.458.551,87€-ko defizita daukagu, baina 2019an egin diren udalaren 1., 2., 4., 7., 8., 10., 11., 12., 14., 16., 17., 18. eta 20. kreditu aldaketak eta kirol patronatuko 1. Kreditu aldaketa, diruzaintza gerakinaren (3.077.704,87€) bitartez finantzatu dira.

Defizita izaten jarraitzen dugunez, kasu honen aurrean legeak ondorengoa dio:

Aurrekontu egonkortasuneko helburua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, gutxienez 2020-2022 epealdia aurreikusiko duena, eta jarduneko urtean edota hurrengoan egoera zuzenduko dela bermatuko duena. Hala ere, helburuaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordezkari 1/2013 Foru Arauaren 5.artikuluaren hirugarren paragrafoan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari.

Plan ekonomiko-finantzario bat egiteko betebeharra zehazteko, apartatu honetan jarritako helburua bete izana 2019ko aurrekontuaren likidazioaren bidez egiaztatuko da.

Aurrekontua onartu zen momentuan gastu arauaren muga betetzen zuen 2019rako aurrekontu bateratuak, ondoren, kreditu aldaketa ezberdinak egiten joan garenez, gastu konputagarria igotzen doa, eta ondorioz udalaren 20.kreditu aldaketaren ondoren, 2019ko aurrekontu bateratuak ez du gastu arauaren helburua betetzen.

Ez betetzearen aurrean legeak ondorengoa dio:

Gastuaren araua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, gutxienez 2020-2022 epealdi aurreikusiko duena, eta jarduneko urtean eta hurrengoan egoera zuzenduko dela bermatuko duena. Hala ere, arauaren ez-betetzea diruzaintza gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordezkari 1/2013 Foru Arauaren 5.artikuluaren hirugarren apartatuan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari.

Plan ekonomiko-finantzario bat onartzeko betebeharra zehazteko, gastuaren araua bete izana 2019ko aurrekontuaren likidazioaren bidez egiaztatuko da.

Horregatik, legeak adierazten duen bezala ez da beharrezkoa plan ekonomiko-finantzarioa egitea, 2019ko aurrekontuaren likidazioa arte, baina bai komunikazio hau egitea Udalbatzari, eta komunikazio hauen bitartez zenbateko berri, eta eguneratuen jakinarazpenak egiten joango gara.

Zumaian, 2019ko azaroaren 7an



Udalaren 20., eta kirol patronatuaren 1. kreditu aldaketaren ondoren, aurrekontu egonkortasunaren eta gastu araua ez betetzearen komunikazioaren berri emanda geratzen da

4.- HIRIGINTZA.-

4.1.- IRIZPENAK:

4.1.1.- ARAU SUBSIDIARIETAKO ORDENANTZEN 67. ARTIKULUAREN ALDAKETARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.-

2019KO URRIAREN 11KO LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIKO ARAU SUBSIDIARIETAKO ORDENANTZEN 67. ARTIKULUAREN ALDAKETARI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO IRIZPENA.

AURREKARIAK

1.-Foru Aldundi honetako Diputatuen Kontseiluak, 2005eko urtarrilaren 25eko batzarraldian, honako erabaki hau hartu zuen: Onartzea Zumaia Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspenaren Testu Bategina (partziala). Dokumentu horretan 2004ko otsailaren 17ko Diputatuen Kontseiluak behin betiko onartutako Hiri Antolaketako Arauetako lurralde eremuen erre gulazioa jasotzen zen. (GAO 2006ko otsailaren 6a).

Geroztik Zumaia Udala Arau Subsidiarioak garatzen joan dira.

Garapenean, 67. Artikulua: Eraikinen kanpoko aldean tratamenduaren homogeneotasuna. aplikatzeko orduan zailtasun juridikoak aurkitu dira multzo arkitektoniko jakin batzuetan, batera garatu ziren arren jabeen erkidego desberdinak eman dituztenetan, hain zuzen.

Aldaketa honen xedea da honako hau ezartzea: batera garatutako edo antzeko ezaugarriak dituen eraikin multzo edo multzo arkitektoniko bat dagoenean, jabeen erkidego desberdinak izanda ere, fatxadarako planteatutako eraikuntza-soluzioa berbera izatea multzo osorako, bai eraikuntza-sisteman, bai materialetan eta koloreetan. Horretarako, lizentzia eman aurretik, multzo arkitektonikoa osatzen duten jabeen erkidego bakoitzeko batzarraren erabakia aurkeztu beharko da, planteatutako eraikuntza-soluzioa onartzen duena.

Behin lehenengo lizentzia emanda, gainerako erkidegoek irizpide berari jarraitu beharko diote fatxadako obrari ekiten diotenean.

2.- Ikusirik 2019ko Urriaren 21ko Lurralde antolamenduko Batzordean gaia informatu zela

IRIZPENA

Ondorioz, 2019ko Azaroaren 11ko Lurralde Antolamenduko Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

Alde: Iñaki Ostolaza (EH Bildu)
Alex Oliden Antia (EH Bildu)
Marina Bidasoro (EH Bildu)

Aurka: 0



Abstentzioa: Oier Korta Esnal (EAJ)
Aitziber Odriozola (EAJ)

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

LEHENA.- ZUMAIKO ARAU SUBSIDIARIETAKO ORDENANTZEN 67. ARTIKULUA ALDATZEN DUEN UDAL ORDENANTZA HASIERAKO ONARPENA EMATEA

BIGARRENGOA: Ordenantzaren hasierako onespeneren iragarkia GAOn argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. Reklamaziorik aurkeztu ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

Zumaia, 2019ko Azaroaren 11a.
LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDEBURUA

Aldeko botoak: 17boto (9 EH BILDU; 7 EAJ-PNV; 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: boto 0

ERABAKIA: 1.- Zumaia Arai Subsidiarietako ordenantzen 67. artikulua aldatzen duen udal ordenantza hasierako onarpena ematea

2.- Ordenantzaren hasierako onespeneren iragarkia GAOn argitaratzea eta dokumentua 30 eguneko agerraldi publikoan egotea. reklamaziorik aurkeztu ez balitz, behin-behineko akordioa behin betikotzat hartua joko da.

4.1.2.- 17 HA-ARTADIKO 17.1 EGIKARITZE-UNITATEAREN HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.-

2019KO AZAROAREN 2EKO LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIKO HIRI ANTOLAMENDUKO. 17.1. U.A.D-RI DAGOKION HIRI BERRIKUNTZAKO PLAN BEREZIARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEKO IRIZPENA.

AURREKARIAK

1.- Ikusirik, JOSU FERNANDEZ DE ARROIABE MARKAIDek sustatutako eta DEBOR, S.L.-ek idatzitako 17 HA-Artadiko 17.1 egikaritze-unitatearen Hiri Antolamenduko Plan Berezia.



Zumaia Udala

2019IAKU0014-A19/9934

2.- Ikusirik 2019-10-21 eta 2019-11-05eko Lurralde antolamenduko Batzordeetan Plan Bereziaren berri eman dela.

3.- Ikusirik 2019ko uztailaren 24an eginiko ezohiko Toki Gobernu Batzordearen batzarrean Plan Bereziari hasierako onarpena ematea erabaki zela. erabakia

4.- Ikusirik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela iragarkia 2019ko Abuztuaren 13an, baita Diario Vasco egunkarian 2019ko Abuztuaren 13an.

5.-Ikusirik agerraldi publikoaren epe barruan Isabel Gorriti Amor (NAN 30630754K) eta Raquel Gorriti Amorrek(NAN 30664443S) lau alegazio aurkeztu zituztela.

6.- Ikusirik, Udal Zerbitzu teknikoek alegazioei erantzuteko egindako txoten teknikoa non hau proposatzen den:

- Isabel Gorriti Amor eta Raquel Gorriti Amorrek eginiko lehen alegazioa onartzea beraz Plan Bereziaren dokumentuan eraikuntza proiektuak paisaian barneratzeko ikerketa izan beharko du, ikerketa hau EAEko Ingurumen Sailak argitaratutako EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN PAISAIAN INTEGRATZEAREN AZTERLANAK EGITEKO GIDAn ezartzen diren irizpideen arabera egin beharko da.

. aukeztutako bigarren, hirugarren eta laugarren alegazioak ez onartzea,

IRIZPENA

Ondorioz, 2019ko azaroaren 25eko Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoaeren Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

Alde: Iñaki Ostolaza Esnal (EH Bildu)

Alex Oñiden Antia (EH Bildu)

Marina Bidasoro (EH Bildu)

Oier Kortza Esnal (EAJ)

Aitziber Odriozola (EAJ)

Aurka: 0

Abstentzia: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren irizpidean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan dauden gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. Artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

LEHENA.- Isabel Gorriti Amor (NAN 30630754K) eta Raquel Gorriti Amorrek(NAN 30664443S) aurkeztutako lau alegazioetatik lehen onartzea eta bigarrena, hirugarrena eta laugarrena ez onartzea.

BIGARRENGOA: JOSU FERNANDEZ DE ARROIABE MARKAIDek sustatutako eta DEBOR, S.L.-ek idatzitako 17 HA-Artadiko 17.1 egikaritze-unitatearen Hiri Antolamenduko Plan Bereziari behin betiko onarpena ematea honako baldintzarekin:

- Plan bereziaren dokumentuan eraikuntza proiektuak paisaian barneratzeko ikerketa izan beharko duela jasoko da (ikerketa hau EAEko Ingurumen Sailak argitaratutako EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN PAISAIAN INTEGRATZEAREN AZTERLANAK EGITEKO GIDAn ezartzen diren irizpideen arabera egin beharko da).

HIRUGARRENGOA: Onartutako dokumentua Foru Aldundiko hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea eta erabakia eta agiri bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratzea



Aldeko botoak: 17boto (9 EH BILDU; 7 EAJ-PNV; 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: boto 0

ERABAKIA: 1.- Isabel Gorriti Amor (NAN 30630754K) eta Raquel Gorriti Amorek(NAN 30664443S) aurkeztutako lau alegazioetatik lehena onartzea eta bigarrena, hirugarrena eta laugarrena ez onartzea.

2.- JOSU FERNANDEZ DE ARROIABE MARKAIDek sustatutako eta DEBOR, S.L.-ek idatzitako 17 HA-Artadiko 17.1 egikaritze-unitatearen Hiri Antolamenduko Plan Bereziari behin betiko onarpena ematea honako baldintzarekin:

- Plan bereziaren dokumentuan eraikuntza proiektuak paisaian barneratzeko ikerketa izan beharko duela jasoko da (ikerketa hau EAEko Ingurumen Sailak argitaratutako EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN PAISAIAN INTEGRATZEAREN AZTERLANAK EGITEKO GIDAn ezartzen diren irizpideen arabera egin beharko da).

3.- Onartutako dokumentua Foru Aldundiko hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea eta erabakia eta agiri bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratzea

4.1.3.- 2019KO OBRA BAIMENETAN ORDENANTZA FISKALETAKO, ICIO ATALEKO %95EKO HOBARIA EMATEA, BIDEZKO BADA.

2019KO ABENDUAREN 9KO LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, 2019KO OBRA BAIMENETAN ORDENANTZA FISKALETAKO, ICIO ATALEKO %95EKO HOBARIA BARNERATZEKO

AURREKARIAK

1.- Ikusirik 2019ko Ordenantza Fiskaletan, Uztailaren 5eko Eraikuntza, Instalazio, eta Obren gaineko Zergaren 15/1989 Foru Arauak, bere 5.artikuluari aipatzen duen bezala: ordenantza fiskalek zerga kuotaren %95era arteko hobaria arautu ahal izango dute interes berezikoak edo udal erabilerakoak deklaraturako eraikuntzen, instalazioen edo obren alde, horretarako arrazoi sozialak, kulturalak, historiko-artistikoak edo enplegua bultzatzeko arrazoiak daudenean. Zerga honetan %95era arteko hobaria arautu ahal izango du osoko bilkurak onartzen dituen obretarako.

Horren ondorioz, 2019ko urriaren 10eko Osoko Bilkurak onartu zuen Uztailaren 5eko Eraikuntza, Instalazio, eta Obren gaineko Zergaren 15/1989 Foru Arauak, bere 5.artikuluari arautzen dituen onuren izendapena. (Eranskina).

Hori dela eta, 2019an zehar eskatu diren obra baimenetan eranskinean azaltzen diren



Zumaia Udala

2019IAKU0014-A19/9934

ezaugarriekin bat datozenak, eta Udaleko Hirigintza, Ingurumena, Obra eta Zerbitzuak Saileko arduradunaren aldeko txostenarekin.

2.- Ikusirik 2019an Fatxaden honako obra baimena eskatu direla.

AITZURI KALEA 16
ALAI AUZATEGIA 12
ESTAZIO KALEA 20
SAN TELMO KALEA 25
ALAI AUZATEGIA 5
ARRITOKIETA 24
JULIO BEOBIDE 19
JADARRE 8
AITZURI 12
AITZURI 18
ARRITOKIETA 16
HONDAR GAIN VILLA 9

3.- Ikusirik 2019ko Abenduaren 9ko Lurralde antolamenduko batzordean gaia informatu zela.

IRIZPENA

Ondorioz, 2019ko abenduaren 9ko Lurralde Antolamenduko Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

Alde: Iñaki Ostolaza Esnal (EH Bildu)
Marina Bidasoro (EH Bildu)
Oier Korta Esnal (EAJ)
Aitziber Odriozola (EAJ)

Aurka: 0
Abstentzia: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren irizpean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. Artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

LEHENA.- Honako fatxadetan egindako obra lanak interes publikotzat jotzea eta ondorioz eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan %95eko hobarria ematea.

AITZURI KALEA 16
ALAI AUZATEGIA 12
ESTAZIO KALEA 20
SAN TELMO KALEA 25
ALAI AUZATEGIA 5
ARRITOKIETA 24
JULIO BEOBIDE 19
JADARRE 8



Zumaia Udala

AITZURI 12
AITZURI 18
ARRITOKIETA 16
HONDAR GAIN VILLA 9

2019IAKU0014-A19/9934

Zumaia, 2019ko Abenduaren 9a.
LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDEBURUA

Iñaki Ostolaza Esnal

Eranskina / anexo

UZTAILAREN 5EKO ERAIKUNTZA, INSTALAZIO, ETA OBREN GAINEKO ZERGAREN 15/1989 FORU ARAUAK, BERE 5.ARTIKULUAN ARAUTZEN DITUEN ONUREN IZENDAPENA.

1. FATXADAK

1.a Efizientzia energetikoa hobetzen duten fatxada eraberritze lanak

"Udalbatza honek, 15/1989 Foru Arauaren 5. Artikulua oinarri hartuta, zirkunstantzia sozialak medio, interes berezikoak jotzen ditu eraikinen efizientzia energetikoa gutxienez maila batean hobetzen duten etxebizitzetako fatxaden eraberritze obrak, betiere indarrean dagoen Efizientzia Energetikoaren kalifikazio eskala oinarri hartuta". Kasu honetan %95eko hobaria aplikagarri izango litzateke.

1.b Etxebizitzetako fatxaden bestelako mantentze lanak (efizientzia energetikoa hobetzen ez dutenak)

Udalbatza honek, 15/1989 Foru Arauaren 5. Artikulua oinarri hartuta, Udal onurakoak jotzen ditu etxebizitzetan fatxada eraberritzeko pintaketa eta mantenu lanak, %95eko hobariarekin izango dute. Kasu honetan, helburua Zumaia etxebizitzetako fatxadak ahalik eta egoera onenean egotea da, itxurari, babesari zein kalitateari dagokionez.

Bi kasu hauek ondo bereiztu nahi ditugu: alde batetik, efizientzia energetikoaren hobekuntza lortzen dutenak; eta bestetik, bestelako hobekuntza edo aldaketak, itxura, babesa zein kalitatea ardatz dutenak. Bigarren motako hobekuntzen kasuan hobariaren portzentajea murrizten joango baita progresiboki hurrengo urteetan, hau dena, efizientzia energetikoari bultzada eman nahian.

2. BASERRIAK

"Udalbatza honek, 15/1989 Foru Arauaren 5. artikulua oinarri hartuta, zirkunstantzia sozialak, kulturalak eta historiko-artistikoak medio, interes berezikoak jotzen ditu baserri eremutako eraberritze obrak, bizilekurako edo ustiapenerako direnak, betiere baserriak ustiapena badu eta Zumaia Arau Subsidiarioetan jasotako definizioarekin bat baldin badator". Kasu honetan %95eko hobaria aplikagarri izango litzateke.

Baldintzak:

-Lur ez urbanizagarrian kokatutako etxebizitza eta eraikin osagarri ezarriko zaie.

-HA 1 edo gehiagoko azalerako lurra edukitzea (jabetzan, edukitzean edo usufruktuan) -

Nekazaritza edo/ta abeltzaintza ekoizpen jardueran bat burutzea.

3. MERKATARITZA TXIKIA

"Udalbatza honek, 15/1989 Foru Arauaren 5. Artikulua oinarri hartuta, zirkunstantzia sozialak medio, interes berezikoak jotzen ditu merkataritza txikia aurrera eramateko burutu beharreko obra enplegua sustatzea helburu. Merkataritza txikia ulertzen da 120 m² arteko azalera duten lokalak. Kasu honetan %95eko hobaria aplikagarri izango litzateke.

Aldeko botoak: 17boto (9 EH BILDU; 7 EAJ-PNV; 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0



Abstentzioak: boto 0

ERABAKIA: 2019. urtean fatxadetan egindako obra lanak interes publikotzat jotzea eta ondorioz eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan %95eko hobaria ematea.

AITZURI KALEA 16
ALAI AUZATEGIA 12
ESTAZIO KALEA 20
SAN TELMO KALEA 25
ALAI AUZATEGIA 5
ARRITOKIETA 24
JULIO BEOBIDE 19
JADARRE 8
AITZURI 12
AITZURI 18
ARRITOKIETA 16
HONDAR GAIN VILLA 9

5.- GIZARTE ZERBITZUAK.-

5.1.- IRIZPENA:

5.1.1.- GIZARTE ZERBITZU DEPARTAMENTUAN DAUDEN DOKUMENTUAK SUNTSITZEKO ETA DAGOKION PROZEDURA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

2019KO AZAROAREN 12KO GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDEAREN IRIZPENA, GIZARTE ZERBITZU DEPARTAMENTUAN DAUDEN DOKUMENTUAK SUNTSITZEKO ETA DAGOKION PROZEDURA ONARTZEKO.

AURREKARIAK

"Zumaia Udaleko Gizarte zerbitzuen Sailean 30 urteetan sortu den dokumentazioaren berrantolaketa bati ekin dio 2018ko ekainean".

Horretarako, CONSUELO URTEAGA ARTXIBO ANTOLAKETA S.L. NIF B20905808 enpresarekin kontratu txikia 512/2018 Alkate erabakiaren bitartez onartu zen. Adituarekin kontratu txiki bat egin da eta aldi berean Zumaia udalak administrari bat kontratatu du gizarte zerbitzuetako sailean ditugun espediente guztian adituaren zuzendaritzapean antolaketa berri bati ekinez.

Dokumentazio guztia Eusko Jaurlaritzako balioesteko eta Aukeratzeko Batzordeak (DOUBAUBA) zehaztutako irizpideak jarraituz antolatu dugu: serie dokumentalak eta dokumentazioaren mantentze iraupena.

Behin, Zumaia udaleko gizarte zerbitzuetako artxiboa antolatu ondoren, 2019ko maiatzaren 16an, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzari atxikitako Dokumentuak balioesteko eta Aukeratzeko Batzordeari (DOUBAUBA) hainbat udal espediente xahutzeko baimena eskaera egin zitzaion.

Behin, DOUBAUBAren onarpena jaso ondoren, 2019ko maiatzaren 28an, Zumaia Udalak dagokion prozedura jarraituko du; alde batetik dokumentazioaren zati bat suntsitzeari ekingo zaio eta beste zati bat kontserbatuko da, azkeneko bost/sei urteak gordeko dira, iraunaldi administratiboa hala delako eta kontserbatzea beharrezkoa delako.



Zumaia Udala

2019IAKU0014-A19/9934

Suntsitzera eramango den dokumentazioa, aktan bitartez zehaztuko da zer eta noiz suntsitu den. Akta hau Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzari atxikitako Dokumentuak balioesteko eta Aukeratzeko Batzordera (DOUBAUBA) bidaliko da.

Suntsitzea proposatzen ditugun serie dokumentalak l. eranskinean zerrendatutakoak dira.

IRIZPENA

Ondorioz, 2019ko azaroaren 19an Gizarte Zerbitzuetako Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: 1 (EAJ); 3 (Eh Bildu)

Aurka: 0

Abstentzioa: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo osoa beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47.2.h) artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1.- Gizarte Zerbitzuan dauden dokumentuak suntsitzeko eta dagokion prozedura onartzea.

2.- Dokumentuen suntsiketa egin ondoren, suntsiketaren akta Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzari atxikitako Dokumentuak balioztatze eta Aukeratzeko Batzordeari (DOUBAUBA)bidali.

Zumaian, 2019ko azaroaren 12an

GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDEBURUA
Jose M^o Azkue Castillo

Aldeko botoak: 17boto (9 EH BILDU; 7 EAJ-PNV; 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: boto 0

ERABAKIA: 1.- Gizarte Zerbitzuan dauden dokumentuak suntsitzeko eta dagokion prozedura onartzea.

2.- Dokumentuen suntsiketa egin ondoren, suntsiketaren akta Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzari atxikitako Dokumentuak balioztatze eta Aukeratzeko Batzordeari (DOUBAUBA)bidali.

6.- PARTAIDETZA, GAZTERIA, BERDINTASUNA.-

6.1.- PROPOSAMENA

6.1.1.-GAZTEMATIKA SAREARI ATXIKIMENDUA ADIERAZTEA



Atxikimendua Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareari, Gaztematikari.

Botere publikoek haur, nerabe eta gazteei dagokienez duten ardura berezia ez da haiek babestera mugatzen; haur eta gazteen sustapena sustatzea ere badute xede. Haur, nerabe eta gazteen inguruko berariazko politika publikoetan, babeseta sustapena alderdi osagarri eta ezinbestekoak dira; izan ere, pertsonen bizitzako aldi horien berezko zaurgarritasunaz arduratzea bezain funtsezkoa da gizakien bizitzan oinarritzekoak diren etapa horietan haien garapen osoa bultzatzea. Haur eta gazteen sustapenerako politikek, haien babeserako politikekin batera, haur, nerabe eta gazteentzako berariazko jardueren esparru bat osatzen dute eta, aldi berean, haur, nerabe eta gazteen eskubideekiko ardura areago nabarmentzen dute eta eraginkorrago egiten, hala politika publiko guztietan nola gizarte bizitzan.

Euskal Autonomia Erkidegoak oraindik gazteriarri buruzko lege orokor edo globalik ez badu ere (onartzeko bidean dago), ezin da bazter utzi arlo horretan izan den jarduerara arauemaile eta planifikatzailea, besteak beste gazte planetan jasoa. Arautze eta partaidetza jarduerara hori lagungarria izan da haur eta gazteen sustapeneraren jarduketara esparrua garatu, moldatu eta ezagutzera emateko; horren fruitu gisa nabarmendu daitezke, adibidez, Euskadiko Kontseiluaren 6/1986 Legea eta Kultura sailburuaren 1999ko abenduaren 10eko Agindua, Gazteen Euskal Behatokiari buruzkoa.

Hain zuzen ere, azken hogeita hamar urteetan Gipuzkoako gizarte zibilak eta erakunde publikoek ibilbide nabarmena egin dute haur eta gazteen sustapenean. Ibilbide horrek ardura publikoa eta lankidetzazko partaidetza baliatzeko eredu bat ekarri du, hiru etapak, haurtzarora, nerabezarora eta gazteria, *continuum* gisa hartzen dituenak. Haur eta gazteen sustapenerako politika sektoreen arteko koordinazioa bultzatu eta zeharkako eragina izan nahi duen arlo gisa eratu da haur, nerabe eta gazteekin zuzenean esku hartzeko zerbitzu propioak dituenak, haur eta gazteen partaidetza sustatuz politika sektorial guztietan eta gizarte bizitzan haur, nerabe eta gazteekin adeitsua edo haien aldekoa izango den ikuspegi bat sortzeko.

Gertuko udalen ardurapeko zerbitzu eta jardueren aldeko apustua egiten jarraitu dugu, bai eta koordinazio eta laguntza lanetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren funtzioa egituratzen eta indartzen ere, udalaz gaindi eta lurralde mailan. Apustu horri esker, 2009an Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sarea, Gaztematika deitua, sortu zen. Sare horrek, hainbat urtez martxan egon eta hobetuz eta prozesu eta aktibo baliotsuak sortuz jardun ondoren, udalen eta aldundiaren arteko lankidetzara hitzarmenak oinarri harturik, Gipuzkoako biztanleria eta lurralde ia osoa hartzen du, eta ehun zerbitzu egonkor baino gehiago ditu martxan.

Ibilbide hori eginda, gaur egun ezinbestekoa da sare hori juridikoki berrestea, mantentzea eta are sakontzea, jardunbide egokiak trukatzeko eta arlo horretan zailtasun edo gabezia gehien dituzten udalei laguntza instituzionala emateko ez ezik, Gipuzkoako Lurralde Historikoan partaidetza eraginkorra sendotzeko topagune eta proposamenen iturri izan dadin, jardunbide egokiak partekatu ahal izateko sare eta esparruak eraikiz, sinergiak bilatuz eta gazteen sustapenerako prozesuak berrelikatuz, modu horretan sorkuntza partekatua eta lankidetzazko gobernantzaren alde eginez. Foru dekretu honek, beraz, aitopen juridikoa ematen dio sareari, eta, horrekin batera, baita merezi duen bultzada ere.

Horren ondorioz, 2019ko apirilaren 16an, elaborazio eta kontraste prozesu zaindu baten ondoren, besteen artean EUDELekin, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen



Sustapenerako Erakundearteko Sarea sortzeari buruzko Dekretua onartu zen. Onarpen honekin Sareak aintzatespen juridikoa ematen zitzaioan eta, bide batez, merezi duen bultzada.

Hain zuzen, Dekretu honen 12. artikuluan, Udalak Sareari atxikitzeari buruz ondorengo esaten da:

12. artikulua. Udalak eta gainerako tokiko erakundeak Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakunde arteko Sareari atxikitzea.

1. Udalen atxikimendua sarera, honi buruzko berariazko udal akordioaren bidez gauzatuko da.

2. Sareari atxikitzeak gizonen eta emakumeen arteko berdintasun ikuspegia txertatzea dakar berekin, eta konpromiso hauek betetzea:

a) Aktiboki parte hartzea Sareko organo eta egituretan esleitutako pertsonen bitartez, hala arlo politikoa nola teknikoa.

b) Proposamen eta ekimenen bidez Sarearen funtzionamendua bultzatzea.

c) Sareko organo edo egitura eskudunen bidez Foru Aldundiak tokiko erakundeen alde haur eta gazteen sustapenaren arloan bideratzen dituen diru-laguntza larroak banatzeko irizpideak zehazteko eta ezartzeko prozesuetan parte hartzea eta erabakiak hartzea.

d) Haur eta gazteen sustapenerako programa zehatzak, prestakuntza programak, topaketak, mintegiak eta bestelako jarduera hezitzaile batzuk proposatzea, Sarean eskumena duten organo edo egiturek eztabaidatu ditzaten eta erabakiak har ditzaten.

e) Haur eta gazteen sustapena errazteko gida metodologikoak edo bestelako edozein bitarteko edo tresna proposatzea, eta batez ere sustapen planen ereduak eta estrategiak diseinatzea.

f) Sareari ezagutzera ematea haur eta gazteen sustapenaren arloan martxan jarri diren jardunbide egokiak, parte hartzen duten erakundeen ezagutza aberastu dezaketenak eta haur eta gazteen sustapenerako foru edo udal politikak –eta gainerako tokiko erakundeenak– hobetu ditzaketenak.

g) Sarearen aurrekontuak ezagutzea eta, hala badagokio, haien inguruan erabakiak hartzea, horretarako eskumena duten organo edo egituren bidez.

h) Foru aldundiak udalerrii eta gainerako tokiko erakundeei laguntza teknikoa eta lankidetzak eskaintzeko aurrera eramaten dituen prozesuetan laguntzea, arazoak edo konpondu gabeko auziak behar bezala identifikatuz eta haur eta gazteen sustapenerako tokiko politikak hobetzea xede duten arauak eta ordenantza ereduak, proposatutako gida metodologikoak eta Sarean bultzatzen den bestelako edozein ekimen sustatuz.

i) Sarea dinamizatzea dauden egituren bitartez, eta, beharrezkoa balitz, Foru Teknikoak koordinatzea.

Gure udalaren kasuan, aipatutako Sarean (...)tik hartu du parte, eta denboraldi horretan, parte-hartzea, nagusiki, urtero hitzarmenak sinatuz gauzatu da.



Horren ondorioz gure entitatea, denboraldi horretan, Gaztematika Sarearekin lankidetzan aritu da, eta Sarea osatzen duten entitate desberdinek egiten duten lanaren onurak jaso ditu: Erreferentziazko markoa, eztabaidarako eta elkarrizketarako hainbat gune, baliabide, gaitasun eta prozesu bateratuak, aholkularitza teknikoa eta bide-laguntza, lurralde mailako plan komun bat, arloari buruzko ezagutza, jakintza eta prestakuntza, diru-laguntzak, lurralde mailako programak, proiektuak eta kanpainak...

Horrenbestez, gure udalak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakunde arteko Sarearekin bat egiteko xedez, hori arautzen duen Dekretuko 12. artikulua ezarritakoaren arabera, osoko batzarraren erabakimenera jarriko da dagokion atxikimendu erabakia hartzeko.

Zumaian, 2019ko azaroaren 28an
Sin. Iñaki Ostolaza Esnal

Aldeko botoak: 17boto (9 EH BILDU; 7 EAJ-PNV; 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: Gaia tratatzea erabakitzen da,

Eta orain proposamenaren bozketa egingo dugu

Aldeko botoak: 17boto (9 EH BILDU; 7 EAJ-PNV; 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: boto 0

ERABAKIA: Gaztematika sareari atxikimendua ematea onartzen da

Eta honekin bukatutzat ematen dugu, eskerrik asko denoi eta hurrengora arte eta Urte Berri on eta Gabonak eta festak ondo pasa ez bagara ikusten

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zortziak eta hogeita bost minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria